

## Landa-eremuko emakumeak ahalduntzea eskubideen nahiz parte-hartze sanitario eta sozialaren arloetan.

**Tokiko antolakundea:** [Santa Anaren Karitateko Ahizpak](#).

**Iraupena:** 2017ko abendua – 2019ko apirila.

**Zenbatekoa:** 14.798,33 €

**Finantzaketa:** [Ordiziako Udala](#) eta tokiko ekarpena ([Santa Anaren Karitateko Ahizpak](#)).

### Laburpena:

Proiektu honen xedea da Sanand eskualdeko (Gujerat estatua) emakumeen gaitasunen garapena bultzatzea, beren antolaketa sendotzen dutela eta gobernuaren garapen-planetan sartzen direla ziurtatuz eta beraien eskubide sozial eta sanitarioetan sakonduz.



Horretarako, bi jarduera ezarri dira:

- Emakume-antolakunde sozialak gaitzea eta sendotzea eskualdeko landa-eremuetan.
- Emakumeen prebentziozko eta sendabidezko osasuna sendotzea, haien eskubideak osasun-kanpaina batzuen bidez bermatuz.